

0547/2024 DEKRETUA

2023/24 ikasturtean euskara ikastaroetan ari(tu) direnei zuzendutako dirulaguntza deialdia onartzeko agindua eman du Euskara eta Kirol arloko zinegotzi delegatuak.

AURREKARIAK

LEHENA.- Udal kontu-hartzailetzaren izapidean dirulaguntza deialdi honetarako aurrekontu-kreditu nahikoa dagoela adierazten da (RC 220240000539 - Esp. zk: 10EUSK-2023/0037).

BIGARRENA.- Dirulaguntzak arautzeko onartu duen araudi berriarekin Udalak marko juridikoa eta aintzat hartuko dituen irizpideak ezarri nahi izan ditu.

OINARRI JURIDIKOAK

LEHENA.- Abenduaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, 38/2003 Legearen gaineko Araudia onartzen duena.

BIGARRENA.- Erandioko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza orokorra, behin betiko onarpena 2024ko martxoaren 13an argitaratua, 52 zk.dun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

HIRUGARRENA.- Honako lege-xedapen hauetan ezarritakoa: 11/99 Legea, apirilaren 21ekoa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea aldarazten duena, 781/86 Errege Dekretua, apirilaren 18koa eta 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (Artikuluak: 114.1, 123 eta 124).

HONAKO HAU XEDATZEN DUT:

LEHENA.- Epe bakarreko lehiaketa bidezko prozedurari jarraituz, 2023ko irailetik 2024ko abuztura bitartean euskara ikastaroetan ari(tu) direnei dirulaguntzak emateko 2024ko deialdia onartzea.

BIGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN GAIA

Ordenantza honen gaia da 16 urtetik gorakoak diren eta HABEk homologatutako barnetegietan edo euskaltegi publiko edo pribaturen batean euskalduntze nahiz alfabetatze ikastaroak egin dituzten Erandioko biztanle eta herritarrei dirulaguntzak ematea.

Era berean, laguntza hauek eskatzeko eskubidea izango dute, beti ere eskakizunak betez gero, UEUk (Udako Euskal Unibertsitateak) nahiz UPV/EHUk (Euskal Herriko Unibertsitateak) antolatzen dituzten curriculumetik kanpoko ikasketetan parte hartzen duten pertsona guztiek, ikastaroen hizkuntza euskara izan baldin bada, oso-osorik edo zati handi batean.

Dirulaguntza hau emateko, norgehiagokako prozedurari jarraituko zaio, ordenantza honetan ezarritako parametroen arabera eta titulu honetan ezarritako zehazpenei jarraituz. Era berean, dirulaguntza hau onuradunek ezaugarri berberekin edo antzekoekin eska ditzaketen beste

batzuekin bateratu ahal izango da, beti ere laguntza guztien kopurua matrikula sari errealaren %100 baino handiagoa ez bada.

HIRUGARRENA.- PERTSONA ONURADUNAK

1. Dirulaguntza hau eskuratu ahal izango dute Erandion erroldaturik dauden eta HABEk homologatutako barnetegietan nahiz euskaltegi publiko edo pribaturen batean euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egin dituzten pertsona guztiek. Era berean, laguntza hauek eskatzeko eskubidea izango dute, beti ere eskakizunak betez gero, UEUk (Udako Euskal Unibertsitateak) nahiz UPV/EHUk (Euskal Herriko Unibertsitateak) antolatzen dituzten curriculumetik kanpoko ikasketetan parte hartzen duten pertsona guztiek, ikastaroen hizkuntza euskara izan baldin bada, oso-osorik edo zati handi batean.
2. Ezin izango dira dirulaguntza honen onuradunak izan Hizkuntza Eskola Ofizialean edo IRALE edo IVAPen programa zehatzen bitartez ikastaroen bat egin dutenak, ez eta enpresa edo erakunde baten diru laguntza jasotzen dutenak ere.
3. Era berean, ez dira diruz lagunduko udalerritik kanpo egindako ikastaroak eta eskola-moduluak, baldin eta Erandioko udal-euskaltegian plaza libreak egon badira.
4. Erandioko udal euskaltegitik kanpo egin diren ikastaroetarako dirulaguntza eskaerak bideratzeko baldintza: aipatutako euskaltegian matrikula egin ezina izatea; plazarik egon ez delako zein ikastaro mota edo ordutegi arazoengatik.
5. Era berean, laguntza eskaera egin ahal izango dute udal langileek eta udalkideek, Udalak xede horretarako onartu duen Araudiaren baldintzak betetzen badituzte.

LAUGARRENA.- ESKABIDEAK

Eskabidean (I. eranskina), honako datuak azalduko dira: datu pertsonalak eta laguntzaren xede den ikastaroari buruzkoak ere. Horrekin batera, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

1. Eskatzailearen NAN.

Gainera, dirulaguntza eskaera eragiten duen arrazoiaren arabera, honako dokumentazioa ere aurkeztuko da:

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren hartzaileak (DBE):
 - Laguntza jaso izanaren egiaztagiria.
- %33ko edo gehiagoko desgaitasun maila duten pertsonak:
 - Desgaitasun mailari buruzko agiria
- Tokiko merkataritzako pertsonala:
 - Establezimenduaren ziurtagiria.
- Guraso bakarreko familia:
 - Egoeraren frogagiria.

- 0-15 urte bitarteko seme-alabak dituztenak:
 - Familia liburua edo frogagiria.
- Haurren edo adineko pertsonen zaintzaileak:
 - Familiaren edo enpresaren egiaztatgia.
- Familia-unitatearen diru-sarrerak:
 - Errentaren aitorpena edo diru-sarreraren agiria.
- Prestazio ekonomikorik gabeko langabeak:
 - Lan eskaeraren alta eta prestaziorik ez izatearena.
- Familia unitate bereko kideak (euskaltegian aldi berean matrikulatuta):
 - Euskaltegien ziurtagiria.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, deialdi honetan parte hartzeak interesdunaren baimena ematea dakar berekin haren datuak Erandioko Udalaren fitxategi informatizatueta sartzeko.

Aipatutako legean aurreikusitako sartzeko, zuzenketa, ezeztapen eta oposizio-eskubideak fitxategi hori kudeatzen duen udal sailaren aurrean gauzatu ahal izango dira (Erandio Elizateko Udala, Irailaren 23a plaza, 48950 Erandio).

Datu horien tratamendu eta babesaren erregimena araudi horrek berak ezarritakoa izango da.

BOSGARRENA.- DIRULAGUNTZAK ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Ondoren zehazten diren ehunekoei dagozkien dirulaguntzak emango dira, betiere ikastaroaren prezioa kalkulatzeko, Erandioko Udalak, 15. Ordenantza Fiskalaren bidez, Udal Euskaltegirako eta ikasturterako ezarritako tasa/ordua (1,16 €) oinarri hartuta:

Edozelan ere, zentro edo ikastaroaren ezaugarrien arabera, honako biderkagaiak ezarriko dira:

Zentro edo ikastaroaren ezaugarriak	Biderkagaia	Tasa
Publikoa	1,00	1,16 €
Pribatua	1,40	1,62 €
Hiriburukoa	1,65	1,91 €
Barnetegia	3,62	4,21 €
Autoikaskuntza	1,00	1,16 €

1. Asistentziagatik dirulaguntza:

Matrikularen kalkuluaren arabera % **20ko** dirulaguntza, % 85eko edo gehiagoko asistentzia ziurtatzen duten pertsona guztiei aplikatzekoa.

Ondorengo ataletan araututako laguntzen onuradun diren kasuan, asistentziagatik onartutako dirulaguntzen portzentajea murriztu ahal izango da, guztira emandako dirulaguntzaren kopurua matrikula sariaren kalkuluaren % 100 baino handiagoa izan ez dadin.

2. Asistentziagatiko laguntzak ez ezik honako laguntza ekonomiko hauek ere eskatu ahal izango dira. Ez dira bateragarriak izango Udal Euskaltegian aplikatutako hobariekin:

2.1. % **20ko** dirulaguntza, matrikula sariaren kalkulua oinarri harturik:

2.1.1. Guraso bakarreko familiak.

2.1.2. 65 urtetik gorako pertsonak.

2.1.3. 15 eta 25 urte bitarteko eskatzaileak.

2.2. % **25eko** dirulaguntza, matrikula sariaren kalkulua oinarri harturik:

2.2.1. Tokiko merkataritzaren esparruan aritzen diren pertsonak.

2.2.2. Familia-unitate bereko beste kideren bat edo gehiago euskaltegian, aldi berean, matrikulatuta badago.

2.2.3. Familia unitatearen diru-sarrera gordinak beheko taulan adierazten diren baremoekin bat datozela egiaztatze duen ikaslea. Oinarri gisa urte honetarako onartuta dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) hartuko da, kasu bakoitzari dagokion biderkagaia aplikaturik:

Familia unitatea osatzen duten kideen kopurua	Biderkagaia	Hilean	Urtean
1	2,15	2.438,10 €	34.133,40 €
2	2,42	2.744,28 €	38.419,92 €
3(+)	2,63	2.982,42 €	41.753,38 €

2.3. % **30eko** dirulaguntza, matrikula sariaren kalkulua oinarri harturik:

2.3.1. %33ko desgaitasun maila edo handiagoa duten pertsonak.

2.4. % **50eko** dirulaguntza, matrikula sariaren kalkulua oinarri harturik:

2.4.1. 0- 15 urte bitarteko seme-alabak dituzten ikasleak.

2.4.2. Umeen eta adineko pertsonen zaintzaileak.

2.4.3. Familia unitatearen diru-sarrera gordinak beheko taulan adierazten diren baremoekin bat datozela egiaztatze duen ikaslea. Oinarri gisa urte honetarako onartuta dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) hartuko da, kasu bakoitzari dagokion biderkagaia aplikaturik:

Familia unitatea osatzen duten kideen kopurua	Biderkagaia	Hilean	Urtean
1	1,14	1.292,76 €	18.098,64 €
2	1,41	1.598,94 €	22.385,16 €
3(+)	1,62	1.837,08 €	25.719,12 €

2.5. % 100eko dirulaguntza, matrikula sariaren kalkulua oinarri harturik:

2.5.1. Inolako prestazio ekonomikorik jasotzen ez duten langabeak.

2.5.2. DBE edo Gizarte Larrialdiko Laguntzen hartzaileak.

2.5.3. Familia unitatearen diru-sarrera gordinak, kide bakoitzeko, ondorengo baremoan ezarritako kopurua gainditzen ez duten pertsonak: urte honetarako onartuta dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS), bider 0,40.

Biderkagaia	Hilean	Urtean
0,40	453,00 €	6.350,40 €

3. Artikulu honen 2. ataleko dirulaguntzak jaso ahal izateko, honako baldintzak bete behar dira: laguntza eskaeraren xede den ikastaroan izandako asistentzia **% 80koa edo handiagoa izatea**, aprobetxamendu egokia egiaztatzea eta ikastaroa amaitzea.

4. Erandioko udal euskaltegia.

4.1. Erandioko udal euskaltegian matrikulatuta dauden pertsonen dagokien hobari-deskontua egin ahal izango zaie, beti ere Erandioko Udalaren 15. ordenantza fiskalean Udal Euskaltegiarekin zerikusia duten baldintzak betetzen badituzte.

Hobariaren zenbatekoa matrikula-saritik deskontatuko da. Horretarako, asistentzia eta aprobetxamendu baldintzak beteko dituela ziurtatuko du sinatu beharreko konpromiso idatziaren bitartez.

4.2. Ikastaroa amaitutakoan asistentzia eta aprobetxamendu konpromiso hori betetzen ez bada, euskara ikastarorik egiteko matrikula egiten duen hurrengo ikasturterako hobari edo/eta dirulaguntza eskubidea galduko du ikasleak.

SEIGARRENA.- DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO EPEA ETA LEKUAK

Beharrezko dokumentazioa erantsi eta gero, dirulaguntza eskabidea aurkeztu ahal izango da 2024ko irailaren 4ko 14:00ak arte.

Eskabideak leku hauetan aurkez daitezke, edo, bestela, lege ezarritako bestelako edozein bide erabilita (39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 16. artikulua).

- Herritarren Arreta Zerbitzuaren bulegoan, Astrabuduan edo Altzagan
(Meso 20 eta Antonio Trueba zeharkalea 2)

ZAZPIGARRENA.- BIDERATZEA ETA EBAZTEA

a) Erandioko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorraren arabera (BAO, 52.zk. 2024, martxoak 13), dagokion saileko instrukzio-organoak prozeduraren instrukzioa egingo du: datuak egiaztatu eta eskaerak ebaluatu.

b) Eskerak ebaluatu ostean, ondorengo kideek osatutako organoak dirulaguntzak bideratzeko txostena eta ebazpen proposamena egingo ditu.

- Batzorde burua: arloko zinegotzi-delegatua.
- Batzordekidea: arloko teknikaria.
- Idazkaria: arloko administraria.

c) Alkatetza da dirulaguntzak ebazteko aginpidea duen organoa.

Dirulaguntzaren emakidari buruzko ebazpena pertsona onuradunei jakinaraziko zaie behar bezala arrazoituta eta gehienez ere bi hilabeteko epean, betiere eskabideak eta dokumentazioa emateko ezarritako epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Erandioko Udalak eskubide izango du eskatzaile bakoitzak emandako edozein datu beste administrazio publikoekin eratzeko, beti ere deialdi honen xede den gaiari atxikita.

ZORTZIGARRENA.- JAKINARAZPENA ETA ARGITARA EMATEA

Ebazpena emanda, pertsona edo erakunde onuradunei jakinarazi beharko zaie Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 58. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

Erandioko Udalak dirulaguntzak eman ahal izateko, emakidaren azalpena eman beharko du udaleko iragarki taulan, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko du ebazpenaren laburpen bat, eduki osoa jendaurrean zein tokitan dagoen adieraziz; hori guztia udaleko euskara zerbitzuaren web-orrian ere emango da argitara.

Ebazpenaren jakinarazpena aurreikusitako epe-mugan jasotzen ez bada, onuradunek ulertu ahal izango dute beren eskabidea gaitzetsia izan dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 44. artikuluan zehaztutakoaren ondorioz.

BEDERATZIGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Erandioko Udalaren Aurrekontuko **35-3352-48010** diru-partidan erabilgarri diren kredituei egotziko zaizkie dirulaguntza hauek, eta gehienez ere, **15.800,00 euroko** zenbatekoan.

Aurrekontuetako kredituetan soberakinik izanez gero, hau da, baldin eta hasieran aurreikusitako gastua baino txikiagoa bada dirulaguntza eskarien zenbatekoa, kreditu soberakinen transferentzia egitea erabaki daiteke eta gehieneko beste zenbatekoak handitu, beste deialdi bat egin behar izan barik. Era berean, aurrekontuko kredituen zenbatekoa handitu egin daiteke kredituak gehitze, gaitze edo sartzearen ondorioz. Arestian ezarritako hori gauzatzeko ezinbesteko baldintza izango da aurrekontuetan kreditu nahikoa egotea eta, bidezkoa izanez gero, dirulaguntza emateko erabakia hartu aurretik aurrekontuari dagokion kreditu aldaketa onartzea.

Edozelan ere, eskaera guztiei erantzuteko aurreikusitako diru-partida nahiko ez balitz, eskatzaile guztien artean hainbanaketa egingo da.

HAMARGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

1. Dirulaguntza eman zaiola adierazten duen jakinarazpena jaso eta ondorengo hamar egun baliodunetan onuradunak ez badio beren beregi eta idatziz uko egiten dirulaguntzari, onartu egin duela ulertuko da.

Dirulaguntza emango dela jakinarazi ondoren, 10 egun igaro eta berehala, Udalak bakoitzari dagokion zenbatekoaren ordainketa izapidetuko du.

2. Dirulaguntza ordaindu baino lehen, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da. Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

3. Dirulaguntzaren ordainketa ez da egingo honako kasuetan:

- a) Onuradunak zerga zorrak egunean ez dituenean.
- b) Itzulketa egiteko ebazpena dela-eta zorduna denean.

HAMAIKAGARRENA.- DIRULAGUNTZEN ITZULKETAK

Dirulaguntzen emakida Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 62. eta 63. artikuluek jasotako baliogabetasun edo deuseztagarritasun akatsetariko batean sartzen den kasuak gorabehera, jasotako kopuruak itzuli eta legezko berandutza interesa eskatu ahal izango da honako kasu hauetan:

- a) Dirulaguntza lortzea horretarako eskatutako baldintzak faltsutuz edo dirulaguntza ematen utziko ez luketen baldintzak ezkutatzuz.
- b) Dirulaguntzaren emakida arrazoitzen duten xedea, jarduera, proiektua edo jokabidea zatiz edo osorik bete ez izana.
Ez-betetzea zatizkoa bada eta betetze osotik hurbil badago, itzuli beharreko diru kopurua ez-betetzearen neurrikoa izango da.
- c) Dirulaguntzaren erregulazio arauetan ezarritakoaren arabera, justifikazio betebeharra ez betetzea edo behar bezala ez betetzea.
- d) Finantza egiaztapen eta kontrol jardueri aurre egitea, alde batera uztea, oztopatzea edo uko egitea eta kontu betebeharrak edo agiriak gordetzeko betebeharrak ez betetzea, baldin eta horren ondorioz ezin bada fondoei emandako erabilera egiaztatu, ezin bada diruz lagundutako jardueren xedea, errealitatea eta maiztasuna ziurtatu edo ezin bada frogatu ea administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatuetatik (nazio mailakoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak) xede bererako emandako diru laguntzen, laguntzen, sarreraren edo baliabideen konkurrentzia egon den ala ez
- e) Gehiegizko finantzazioa benetako kostuaren aldean; gehiegizko zati hori, beraz, itzuli behar izango da.

- f) Pertsona edo erakunde onuradunei ezarritako betebeharrak ez betetzea edo diru laguntza ematean hartutako konpromisoak ez konplitzea, baldin eta diru laguntzaren emakida arrazoitzen duten helburuak lortzeko, jarduera egiteko, proiektua gauzatzeko edota izan beharreko jokabidea hartzeko moduari eta epeari eragiten badiete.

HAMABIGARRENA.- ITZULKETA ESPEDIENTEA

Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko sarrera izaera dauka; horrek berekin dakar Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Araua aplikagarria izatea, bai eta Erandioko Udalaren kudeaketa, diru bilketa eta ikuskapenari buruzko ordenantza ere.

Edozein kasutan ere, prozedura izapidetzean onuradunak entzuna izateko daukan eskubidea bermatuko da, bai eta bere jarduketa defendatzeko bidezko alegazioak egiteko eskubidea ere.

Itzulketa eskatzen duen ebazpena diru laguntza eman zuen organo berberak emango du; horretarako, eskaera horren justifikazioa egingo du eta itzuli beharreko kopurua zehaztuko du, bai eta sarrerarako borondatezko epea ere. Halaber, ohartaraziko du, itzulketa epe horren barruan egin ezean, premiamendu bideari ekingo zaiola.

HAMAHIRUGARRENA.- Era berean, deialdi honi behar besteko hedapena emateko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta euskara zerbitzuaren web orrian argitaratu beharko da.

HAMALAUGARRENA.- Ebazpen hau ondokoei jakinaraztea bidezko diren ondorioak izan ditzan: Ogasun sailari eta hizkuntza normalkuntzari. Era berean, Idazkaritza sailari ere jakinaraziko zaio, kontu hartu eta alkateak zein korporazioko kide eskuordetuek emandako Ebazpenen Liburuan jasota gera dadin.

Erandio, 2024ko martxoaren 15a

Alkateak hala dekretatu eta izenpetu du.

Alkatea
Aitziber Oliban Gutiérrez

Kontu hartu dut
Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren
3.2 e) artikulua betez

Behin-behineko idazkaria
Javier Basante Otegi